

Zuraide indarrean

Souraïde dynamique

Zuraideko Talde Abertzalea
zuraideindarrean@gmail.com

1. zenbakia – 2014ko uztaila



Beti hor !!

*Jada lau hilabete
hauteskundeak iragan geroztik !*

*Zuraide indarrean taldeak berriz
ere zuraidarrak eskertu nahi
ditu, eskaini diozuen konfiantza
gatik, baita hauteskunde
kanpaina denboran maiz
erakutsi diozuen atxikimendua
eta sustengua gatik ere.*

*Zuei esker, lehen aldiko hautetsi
abertzale bat bada herriko
kontseiluan. Berekin, heldu
diren sei urterentzat, bide orri
bat dugu eta gure baloreen
defentsan ariko gira buru belarri.
Lan hori hautetsi guziekin
eraman nahi dugu, izpiritu
konstruktibo batean, Zuraideko
biztanleen interesetan.*

*Hautetsi edo politikariaren
eginbidea herritarrekin
elkarrizketa berpiztea dela argi
dugu, eta iragan hiruilaren bilan
osoa egin nahi izan gabe,
zuekin partekatu nahi genituzke
gure gogoeta batzuk.*

... HERRIKO KONTSEILUA ...

Laborantzako lur eskaintza

Herriko laborantzako lur hektarea batzuk (6Ha Larraldian eta 3 Ha Errekartian) laborariei proposatu zaizkie, hautagaitza-dei baten bidez.

Lur horiek zatituak izan dira lau laborari zuraidarren artean.

Lur horien lantzea herriko laborarien esku uztea begi onez ikusten badugu ere, iduritzen zaigu herriko etxe batek alokatze kontratu baten bidez duela laborantza herrikoia sustzen ahal, azken hau delarik aktibitate horrentzat etorkizun iraunkor bat segurtatzen duen bakarra, oreka naturalen errespetuan.

Bizi berri bat trinketarentzat

Trinketeko ateak berriz zabaldu ditu lau hautagaien artean atxikia izan den Jean-Christophe Ithurry kudeatzaile berriak. Komertzio horren berridekitzeaz pozten gira, Zuraideren erakargarritasuna eta herri barneko animazioarentzat abantaila gehigarri bat baita. Proiektu berri hortan zorte ona opa diogu !

Herriko alokairuen apaltzea

Kontseiluak herriko apartamenduen alokairuak 100€-z apaltzea bozkatu du. Zuraide indarrean taldeak berri onez hartu du gazteen eta soldata apaleko jeendeen aldeko erabaki hau.



HERRIKO PREZIO FINKOA

Oroitaraz dezagun lehenik herriko prezio finkoa dela erakaskuntza pribatu eta publikoaren arteko finantzamenduaren parekotasuna segurtatzeko herriko etxeak emaiten duen diru zama.

Marie-Christine Bordak herriko kontseiluan galdegin du ikastolentzat zuzendua den diru-zama handitzea, eskola pribatuaren heinetik hurbiltzeko. Alabaina, nola justifika genezake herriko etxeak haur batentzat beste batentzat baino lau aldiz diru gehiago gastatzea ?

Gaur egun, denen iritziz, anitz gauza aitzinatu badira ere, Seaskak proposatzen duen murgiltze sistema da gure haurrak eskolatze bukaeran elebidunak izanen direla segurtatzen duen sistema

bakarra. Hein berekorik ez da (oraindik) publikoan, eta horrek ditu gutariko batzuk beren haurren ikastoletan eskolatzea bultzatzen.

Herri bakoitzak bere euskarazko eskola ez duen bitartean, ikastola da den aterabide bakarra, eta beti hain desatsegina zaigu 70 hamarkadakoak iduritzen zaizkigun argumentuen entzutea.

Azpirarra dezagun halere auzapez jaunak aitortu duela zuzenketa batzuen beharra badela eta hurbilagoetik aztertzea dela. Horregatik ahobatezkotasunean bozkatua izan da baina erne egonen gira, bereizkuntzak ahal bezain gutti iraun dezan.

Herriko prezio finkoa :
diru-zama finko...
aldakorra

ESKOLA PUBLIKOA

Hauteskunde kanpaina denboran bezala, eskola publikoarekiko sustengua berresten dugu, eta datozen aldaketek guraso anitzen itxaropenei erantzunen diela espero dugu, erakaskuntza elebidunarena adibidez.

GU ERE BAGOAZ

Auzapez jaunak, Marie-Christine Bordarekin batera, joan zen ekainaren 14ean iragan zen bake

prozesuaren aldeko manifestaldiari eman sustenguaz pozten gira.

ZERBITZU PUBLIKOA

Zuraideko herriko etxeo biziaz interesatuak diren guzientzat, gure blogean (zuraideindarrean.eu) agerrarazten ditugu herriko kontseiluetako bilkura-agiriak.

Zuetariko batzuei iduritzen bazaizue ez dela gure eginkizuna eta herriko etxeari litzatekeela egitea, erantzunen

dizuegu... arrunt zuekin ados girela.

Informazioak eskura emaitiaz gain, nahi ginuke blog hori zuen ohar eta nahien jakinarazteko tresna bat bilaka dadin.

Ez duda zuen mezuen igortzea :
zuraideindarrean.eu

PENTSAMOLDE GLOBALA, EKINTZA ZUZENA

Zuraideko talde abertzalea erregulariki biltzen da gai ezberdinen inguruan eztabaidatzeko eta solasteko, denek komunean dutelarik herrian dinamika baten bultzatzeko gogoia, atxikiak zaizkigun baloreen inguruan: euskara, kultura, herritarren arteko harremana...

Gure desmarxa gustukoa baduzu eta zuk ere parte hartu nahi baduzu, ongi etorria zira. Ez duda gurekin harremanetan sartzeari ondoko bilkura noiz den jakiteko.

Harremana : zuraideindarrean@gmail.com

ZURAIDEKO BESTAK

Zuraideko besta onak iragan ditzazuen opa dizuegu denei. Denek eskuratu dugu besten egitaraua, zeintan zuraidar guziak gomit giren besta taldeak eskaini igande eguerdiko hurrupaldira. Galdegin diogu Marie-Christine Bordari herriko kontseiluak bere gain hartzea hurrupaldi horren diru gastuak, besta taldearen orde.

Haren eskaera kondutan hartuko dutelakoan :

Besta on deneri !

Zuraide indarrean

Souraïde dynamique

Groupe Abertzale de Souraïde
zuraideindarrean@gmail.com

Numéro 1 – Juillet 2014

Toujours là !!

Déjà quatre mois depuis les élections !

Zuraide indarrean tient ici à renouveler ses remerciements à vous tous, Zuraidar, qui lui avez accordé votre confiance et très souvent aussi, témoigné de votre sympathie ou de votre soutien lors de la campagne électorale.

Grâce à vous, pour la première fois, le conseil municipal compte une élue abertzale. Avec elle, pour les six années à venir, nous avons une feuille de route et nous nous attacherons à œuvrer sans relâche pour défendre nos valeurs. Ce travail, nous souhaitons le mener avec tous les élus, dans un esprit constructif, dans l'intérêt des habitants de Zuraide.

Convaincus que l'élue ou le politique a le devoir de renouer le dialogue avec les citoyens et sans vouloir dresser un bilan exhaustif du trimestre écoulé, nous voulons ici vous faire partager quelques-unes de nos réflexions.

... CONSEIL MUNICIPAL ...

Mise à disposition de terrains agricoles

Plusieurs hectares de terrains agricoles (6 Ha à Larraldia et 3 Ha à Errecartia) appartenant à la commune ont été mis à disposition des agriculteurs par le biais d'un appel à candidatures.

Ces terrains ont été divisés en plusieurs lots à partager entre quatre agriculteurs Zuraidar.

Si nous sommes d'accord avec la démarche de confier le travail de ces terres à des agriculteurs du village, nous pensons aussi que c'est lors de la contractualisation d'un bail qu'une municipalité peut promouvoir l'agriculture paysanne, seule à même de garantir un avenir durable pour cette activité dans le respect des équilibres naturels.

Une nouvelle vie pour le trinquet

Le trinquet a rouvert ses portes depuis fin juin. Jean-Christophe Ithurry, le nouveau gérant, a été retenu parmi quatre candidats. Nous ne pouvons que nous réjouir de la réouverture de ce commerce qui sera un atout supplémentaire pour l'attractivité de Souraïde et l'animation du bourg.

Souhaitons-lui bonne chance dans ce nouveau projet !

Les loyers communaux à la baisse

Le conseil municipal a voté une baisse de 100 € des loyers des appartements communaux. Une décision en faveur des jeunes et des personnes à faible revenu saluée unanimement par l'équipe de Zuraide Indarrean.

LE FORFAIT COMMUNAL

Rappelons tout d'abord que le forfait communal est le montant que versent les communes pour garantir la parité de financement entre l'enseignement privé et l'enseignement public.

Lors du conseil municipal, Marie-Christine Borda a demandé à ce que le forfait versé pour les ikastola soit rapproché de celui versé pour l'école privée. En effet, comment pourrait-on justifier que la municipalité dépense quatre fois plus pour un enfant que pour un autre ?

De l'avis de tous, de nos jours, même si beaucoup de choses ont heureusement évolué, le système immersif proposé par Seaska est le seul qui garantisse que nos enfants seront bilingues à la fin de leur scolarité. L'équivalent n'existe pas (encore)

dans le système public et c'est ce qui conduit certains d'entre nous à scolariser nos enfants à l'ikastola.

En attendant que chaque village ait sa propre école en euskara, l'ikastola est la seule solution existante et il nous est toujours aussi désagréable d'entendre des arguments qui nous semblent dater des années soixante-dix.

Le forfait communal : un montant forfaitaire... mais qui varie

Notons tout de même que M. le Maire a reconnu qu'il y avait matière à rectifier et qu'il faudrait y regarder de plus près. C'est ce qui a permis un vote à l'unanimité mais nous serons attentifs à ce que la discrimination dure le moins longtemps possible.

ÉCOLE PUBLIQUE

Comme lors de la campagne électorale, nous réaffirmons notre soutien à l'école publique et nous espérons que les changements à venir permettront de répondre aux attentes de nombreux parents d'élèves, notamment en ce qui concerne l'enseignement bilingue.

GU ERE BAGOAZ

Nous nous réjouissons du soutien affiché par Monsieur le Maire, aux côtés

de Marie-Christine Borda, à la manifestation du 14 juin dernier en faveur du processus de paix.

SERVICE PUBLIC

Pour tous ceux qui sont intéressés par la vie municipale de Souraïde, nous mettons en ligne sur notre blog (zuraideindarrean.eu) les procès-verbaux des réunions du conseil municipal.

Si certains d'entre vous pensent que ce n'est pas notre rôle et que ce serait à la Mairie de le faire, nous vous répondrons que.... nous

sommes tout à fait d'accord avec vous.

Au-delà de la mise à disposition d'informations, nous souhaitons que ce blog devienne rapidement un outil qui vous permette de nous faire part de vos observations ou de vos souhaits.

Soyez nombreux à nous laisser vos messages :
zuraideindarrean.eu

PENSER GLOBAL, AGIR LOCAL

Le groupe abertzale de Souraïde se réunit régulièrement pour des débats et des discussions sur des sujets variés qui ont pour point commun la volonté d'impulser dans notre village une dynamique autour des valeurs qui nous sont chères : euskara, culture, lien social...

Si la démarche vous intéresse et que vous voulez y participer, vous êtes les bienvenus. N'hésitez pas à nous contacter pour connaître la date de la prochaine réunion.

Contact : zuraideindarrean@gmail.com

FÊTES DE SOURAÏDE

Nous vous souhaitons à tous de passer d'excellentes fêtes de Souraïde. Nous avons tous reçu le programme qui invite tous les Zuraidar à l'apéro du dimanche midi offert par le comité des fêtes. Nous avons demandé à Marie-Christine Borda de proposer au conseil municipal de prendre en charge financièrement cet apéritif à la place du comité des fêtes.

En souhaitant que sa demande soit entendue :

Bonnes fêtes à toutes et à tous !